

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Heziketa Zikloetako ikasleak europako enpresetan Erasmus programa europearrari esker

2009/05/14

Eskolak hamabi urtez jarraian hartu du parte Erasmus, ikasleen mugikortasun programan. Programa honi esker goi mailako heziketa zikloetako ikasleek Europako beste herrialde batzuetako enpresetan hiru hilabetetako praktikak egin dituzte. Honetarako, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren babesu jaso da eta baita HETEL, CONFEBASK eta IKASLANen laguntza ere. Ildo honetan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak, ezaugarri dituen berrikuntza nahiarekin eta nazioartera irekitzeko asmoarekin bat, Europako dimentsioari prestakuntza sarbidea eman nahi dien programa honetan parte hartzeko aukera eskaintzen die ikasleei. Halaber, programa honetako beken bidez, hizkuntza gaitasuna garatzeaz gain, prestakuntza enpresen beharretara ere egokitzen da, kontuan hartu behar baita gero eta merkatu globalizatuagoa dugula. Honetaz gain, ikasleentzat esperientzia ahaztezina izaten da, eta aldi berean ikasleek landutako gaitasun osagarriari esker, lan profila hobetu egiten da, eta enpresa munduan sartzeko aukerak ugartu. Orain arte, programatik bueltan etorritako ikasleen artean lan munduan sartutakoen kopurua oso handia izan da.

